

	<p>ZARAUTZ KIROL ELKARTEA 1944</p>	<p>ESKUBALOI SAILA COVID19 protokoloa eta kontingentzia plana</p>
---	--	--

ALDERDI OROKORRAK

Dokumentu honek COVID-19 ari aurre egiteko prebentziorako protokolo eta kontingentzia plana azaltzen du. Plan hau ZARAUTZ KE etxeko talde bezala aritzen den kadete, jubenil eta senior kategoriatako Euskadiko Txapelketan eta Euskadiko Kopan aplikatu beharko da .

ZARAUTZ KEk Osasun Arduradun bat izendatu du hartutako banantze eta higiene neurri guztiak bete daitezen, bai ESKUBALOI EUSKAL FEDERAZIOAREN protokolo orokorrean adierazitakoak, baita dokumentu honetan deskribatzen diren ZARAUTZ KEk zehaztutakoak ere.

Edozein arrazoiengatik Osasun Arduraduna ordezkatu behar bada, lan hori egingo duten ordezkoak izendatu dira. Ordezkapena ESKUBALOI EUSKAL FEDERAZIOARI partiden ordutegiekin batera adieraziko zaio, horrela kanpoko kluba eta epaile taldea jakinaren gainean egon daitezen.

Instalazioetara bertaratzen den edonork hartutako neurriak ezagutu eta onartu beharko ditu. ZARAUTZ KEk, aurrez abisatuta, araudia betetzen ez duen edozein kanporatu dezake. Halaber, egoera hori orokortzen bada partida geratu edo/eta bertan behera utzi ere egin dezake.

Gogoratu maskararen erabilera derrigorrezkoa dela uneoro. Salbuespen izango dira kirolari eta arbitroak partida garaian edo jarduera fisiko handia denean, beroketa saioak esaterako.

Protokolo honen edozein egokitze badago dagokion agintariak horrela adierazi dutelako, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOARI bidaliko zaio.

INSTALAZIORAKO SARRERA ETA IRTEERAK

Zarauzko Udal Kiroldegira sartzeko Araba kalean dagoen sarrera erabiliko da (Ikusleen ohiko sarrera, alegia) modu mailakatuan eta gidatuan jende pilaketak saihesteko.

- Etxeko taldea: 1:15 partida hasi aurretik..
- Kanpoko taldea: 1:00 partida hasi aurretik.
- Arbitroak: 00:45 partida hasi aurretik.

Instalaziotik irten leku beretik egingo da, modu mailakatuan eta gidatuan orain ere. ZARAUTZ KEko arduradunak adieraziko du noiz irten, bi taldeak edo/eta arbitroak korridorean bat egin ez dezaten. Arau orokor gisa ordena honi jarraituko zaio:

- Ohar-hartzailea eta kronometratzailea: partida amaitu eta ahalik eta lasterren.
- Dutxak erabiltzen ez dituzten etxeko jokalariakl (herrian bertan bizi diren jokalaria): partida amaitu eta 5-10 minutura.
- Dutxak erabiltzen dituzten etxeko jokalariakl (herrian bertan bizi ez diren jokalaria): partida amaitu eta 10-15 minutura.
- Bisitarien taldeko jokalaria: partida amaitu eta 15-20 minutura.
- Arbitraje-bikotea: partidaren ondoren 20-25 minutura (irteten azkenak izango dira dagozkion aktak itxi ahal izateko).

Instalazioaren barruko sarbideak, irteerak eta ibilbideak ilaratan ordenatuta egingo dira, eta gizarte-distantzia 2metrokoa izango da. Oro har, ahal den guztietan, korridoretan eskuinetik zirkulatuko da. Instalaziora sartu eta irten espedizio osoak egingo du.

	<p>ZARAUTZ KIROL ELKARTEA 1944</p>	<p>ESKUBALOI SAILA COVID19 protokoloa eta kontingentzia plana</p>
---	--	--

INSTALAZIOAREN BARRUKO IBILBIDEAK

Ibilbidea jarraian adierazten diren instalazioaren espazio guztietan gidatu egingo da. Hainbat partidatako parte-hartzaileak instalazioaren barruan ez direla gurutzatzen bermatzeko, bi ibilbide-eredu jarraituko dira, jokalekua hutsik edo okupatuta dagoen arabera. Hau partehartzaile guztiei jakinaraziko zaie pabiloian sartzeko unean.

PISTA HUTSIK DAGOENEAN

1. Sarrera
2. Aldagela
3. Jokalekua
4. Aldagela
5. Irteera

PISTA OKUPATUTA DAGOENEAN

1. Sarrera
2. Aldagela
3. Harmaila (jendearentzako ohiko sarbidea eskaileratik)
4. Jokalekua
5. Aldagela
6. Irteera

Klub bisitariak ZARAUTZ KEri jakinarazi behar dio noiz doazen bi talde elkarrekin partidak jokatzeko, hala nola Euskadiko Kadete eta Jubenilen Txapelketan. Horrela bada, ondorengo protokoloa jarraituko da:

Lehenengo partida jokatu duen taldea sartuko da lehendabizi, aurreko ibilbide-ereduak jarraituz.

Jarraian, bigarren partida jokatu behar duen taldea zuzenean gradetara joango da (jendearentzako ohiko sarbidea eskaileratik) eta bertan egongo da, markatutako gune batean, ZARAUTZ KEko arduradunak aldageletara joateko esan arte eta une horretatik aurrera aurrez aipatutako ibilbideak jarraitu.

Lehen partida jokatu duen taldea gradetara joango da (jendearentzat ohiko sarbidea eskaileratik) partida amaitu eta aldagela erabili ondoren eta bertan egongo da, markatutako gune batean, bigarren partida bukatu arte eta ZARAUTZ KEaren arduradunak instalaziotik irteteko unea adierazi arte.

Jakinarazpen hori posta elektronikoz bidez egin behar zaio ZARAUTZ KEren osasun arduradunari, topaketak baino hiru egun lehenago gutxienez. Ez da baimenik emango klub bisitariaren bi talde instalaziora sartzeko, adierazitako epean eta moduan jakinarazi ez bada.

PREBENTZIO ETA HIGIENE NEURRIAK

Temperaturaren kontrola

Sartzeko unean, ZARAUTZ KEk izendatutako boluntario batek egingo du. Ez da instalaziora sartuko 37,5° C- tik gora duen inor. Norbaitek tenperatura hori gainditzen badu, neurketa errepikatuko zaio 10 minutu igaro ondoren eta berriz gaindituko balu, instalaziora sartzea debekatuko zaio.

	<p>ZARAUTZ KIROL ELKARTEA 1944</p>	<p>ESKUBALOI SAILA COVID19 protokoloa eta kontingentzia plana</p>
---	--	--

Eskuak eta oinetakoak desinfektatzea

Gel-banagailu hidroalkoholikoak jarriko dira, bai sarbidean, bai pistan. Derrigorrez erabili beharko da instalaziora sartzerakoan.

Instalazio sarbidean oinetakoak desinfektatzeko moketa bat jarriko da. Derrigorrez erabili beharko da.

Galarazita dago joku eremura kaleko oinetakoekin sartzea.

Jokurako oinetakoak aldagelan jantzi behar dira eta partida aurretik etxean desinfektatu behar dira.

Aldagelaren erabilera-arauak

Talde bakoitzak, etxeakoak, kanpokoak eta arbitroak aldagela bana izango du.

Kanpoko taldeak eta arbitroak dutxa erabili ahal izango dute.

Etxe taldeak ezin izango du dutxa erabili, herrian bertan bizi ez direnak salbu. ZARAUTZ KEK instalazioaren arduradunarekin adostuko ditu salbuespen kasu horiek.

Talde bakoitzaren aldageletatik kanpoko komunak eta ur-txorrotak ezingo dira erabili.

Aldagela modu kolektiboan bakarrik erabili ahal izango da partidaren aurretik eta ondoren. Behin pistara joan ondoren eta partidaren amaiera arte (atsedenaldia barne) bakarka bakarrik erabili ahal izango da eta pistatik aldagelarinoko bidean maskararen erabilera derrigirrezkoa da.

Talde bat eta bestearen artean, legeak dagokiona betez aldagelaren garbitasun eta desinfekzioa bermatuta egongo da.

Babes-materialak eta hondakinak desegiteko elementuak

Bai aldagelatan baita pistara bidean ere, zakarrontziak egongo dira beharrezkoak diren babes materialak eta hondakinak botatzeko.

Talde bakoitzaren arduradunak bermatu behar du parte-hartzaileek instalazioko edozein guneko hondakinik gabe uzten dutela.

Jatea debekatuta dago instalazio osoan.

COVID-19rekin bateragarri diren sintomak

Partidak irauten duen bitartean norbaitek COVID-19rekin bateragarri diren sintomak baditu, izendatutako Osasun Arduradunak berehala adieraziko die agintari eskudunei eta hauek zehaztuko dute jarraitu beharreko protokoloa.

Bitartean pertsona isolatuta egongo da horretarako prestatutako espazio batean (klubaren taberna ez-aktiboa), eta oinarrizko neurriak ziurtatuko ditu, hala nola espazioa ondo aireztatzea eta pertsona horrek berehala maskara erabiltzea.

	ZARAUTZ KIROL ELKARTEA 1944	ESKUBALOI SAILA COVID19 protokoloa eta kontingentzia plana
---	--------------------------------	--

Hidratatzea

Parte-hartzaile bakoitzak bere ur-botilatxoa ekarri behar du. Hau bete ahal izango da baina aldagelatarako joan-etorria banaka egin beharko da.

Lehiaketa

Etxeako klubak aurreko partiduaz geroztik berrogeialdian egon diren bi baloi aurkeztuko ditu. Baloiak partida bakoitzaren amaieran desinfektatu egingo dira eta lehiaketan bakarrik erabiliko dira.

Klub anfitrioiak talde bakoitzaren eskura jarriko ditu spray desinfektatzailea eta papera, bai atsedendian bai partida amaitzean aulkiak garbitzeko. Talde bakoitzaren arduradunak desinfekzio hori bermatu behar du eta hondakinak egoki bideratu.

Klub anfitrioia arduratuko da partida bakoitzaren ondoren ohar hartzaile- kronometratzailearen mahaia desinfektatzeaz.

Publikoa

Dokumentu honetan aipatzen diren partida guztiak publiko gabe jokatuko dira.

BALDINTZAK BERRESTEA ETA PARTE HARTZEKO NEURRIEKIKO KONPROMISOA

(Inprimakiaren eranskina)



ESTEBAN COLLANTES ANDOAGA

ZKE LEHENADARIA